

“EUSKALARIEN NAZIOARTEKO JARDUNALDIAK” LIBURUAREN AURKEZPENA

Gasteiz, 1981-XI-27

E. Knör

Gasteizen

Azaroak 27, 1981, arratsaldeko seietan, Gasteizen, Arabako Diputazioaren Jauregian, Batzarre Nagusien Aretoan, *Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak* liburuaren aurkezpena egin zen.

Ramon Labaien jauna, Kultur Kontseilaria, zen mahaiburua, Carlos Garaikoe-txea Lehendakariaren ezin etorrian. Haren ondoan, Marcelino Oreja jauna, Espainia-ko Gobernuaren Ordezkaria; Emilio Gebara jauna, Arabako Diputatu Nagusia, eta Luis Villasante Kortabitarte jauna, Euskaltzainburua. Aretoa beterik zegoen, euskaltzain oso, urgazle, parlamentari, diputatu foral eta gainerako jendea zelarik entzuleria.



Vitora-Gasteiz, 1981-XI-27.

Ezkerretatik eskumatara: Fr. Luis Villasanta, *Euskaltzainburua*; Ramon Labaien, *Jaur-laritzako kultur Kontseilaria*; Juan Jose Pujana, *Legebiltzarburua*; Emilio Guevara, *Arabako Diputatu Nagusia*.

Ongi etorritzko hitz batzu Gebara jaunak egin zituen. Ondoren, J. Haritschelhar jaunak liburuaren mamiaz hitzaldi labur bat egin zuen. Euskaltzaindiak Jardunaldiak antolatzerakoan izan zuen xedea adierazi zuen bereziki, orobat liburuaren bikaina, eta, azkenik, bere atsegina agertu zuen, zeren argitalpena Jardunaldiak ospatu eta urtebetera burutua zen eta.

Labaien jaunak bukaerako zenbait hitz esan zituen Eusko Jaurlaritzaren izenean, Euskaltzaindiari zorion agiankatuz.

EUSKALARIEN NAZIOARTEKO JARDUNALDIAK LIBURUAREN AURKEZPENA

Madrid, 1981-XII-4

J. M.^a Satrustegi

Madriren

Euskara jalgi hadi mundura esan zuelarik B. Etxeparek, amets gozo baten hegalkada argian edo amodio itsuaren zurrunbilo beroan murgildurik zebilen olerkariaren izpiritu ernea. Ez zuen usteko lau menderen buruan mendi zokoetan bazterturik gelditu zaigularik gure hizkunza mundu zabaleko haizetara ireki zaigula euskaldunon pozgarri. Euskalari ospetsuen Gernika-Leioako Jardunak nazioarteko gertakizun zaratatsu gertatu baziren, Jardunaldietako lanen aurkezpena ere garrantzitsua izan da euskararentzat Madriren.

Abenduaren 4ean egin zuen Euskaltzaindiak IKER saileko lehen alearen aurkezpena estaduko hiriburuan. Kanpora begira egindako ospakizun hau harrokeriaz ez baino gaur euskarak behar beharrezkoak dituen zenbait helburu lortzeko gertatua zen. Liburua aurkeztuz Euskalariak eta bertan bildutako lanek duten garrantzia azpimarratu nahi zen lehenik, eta erdal Akademiako gizonekin harremanetan sartzeko aitzaki ederra genuen bestetik. Hizkunza batek gaur ezin du negugiroko bakardade itxian bizirik iraun. Utzikeriaren hautsak eta sitsak janen luke ganbara zokoetako puska zaharren antzera. Hizkuntza mintzabide da beti eta mintzatuz aberasten da hizkuntza arrotzen lotura ugarirekin.

Zuzendaritzako bost euskaltzain hauek joan ziren: L. Villasante Buru, Koldo Mitxelena Iker Sailburu, J. San Martín Jagon Sailburu, E. Knörr eta J. M. Satrustegi idazkaria. Era berean Madriren ziren, J. A. Arana Martija, J. L. Lizundia, P. Sancristoval, P. Yrizar eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak.

Espainiako Akademiaren egoitza ikusi genuen goizetik Alonso Zamora Vicente, idazkari orokorra, gidari. Liburutegi eta fitxategian igaro genuen denbora gehiena, bertako esku izkribu aipagarri eta balio bereziko liburu arraroak ikusten. Harrera ezin hobea izan genuela esan behar da. Itxurakeriarik gabeko besarkada jatorra eman zitzaion Euskaltzaindiari Espainiako Akademian bere lehenbiziko irteera ofizial honetan.

Ikasgairik ere bazen. Hiztegegintza da akademilari haientzat elkar laneko ia ekingiza bakarra. Aste guziz bildu ohi dira eta aztergai guzien prozedura han ikusi da.

Ikusi gabe ezin da sinets hiztegi fitxen zerrenda. Harrobi ikaragarria. Hizkuntza aldatzen eta esames berrien kutsua hartzen doan eran jaso ohi dituzte gehigarriak. Lan astuna baina beharrezkoa.

Eguerdiaren, euskaldunen biltoki den 'Txoko zar' sukaldera inguratu ginen Antonio Tovar eta González Echeagaray jaunekin. Ardoa eta ura, zukua eta okela hizkun-

tzarekiko gazi biziak gatzaturik jan genituen. Hizkuntza eta Filologia ere egoskorra-
goak dira mahai on baten inguruan.

Arratsaldeko zazpitan genuen eginkizun nagusia eta Espasa-Calpe argitale-
txeak duen "La Casa del Libro" izeneko liburu dendan gertatu ziguten barne bat.
Uste baino jende gehiago bildu zen eta gela haundia ez bazen ere, jarleku guziak
kokahala bete ziren.

Erdal Akademia genuen plazalagun eta aurkezle. Han ziren gurekin, Guillermo
Diaz Plaja, Pedro Lain Entralgo, Rafael Lapesa, Pedro Sainz Rodriguez, Manuel
Seco, Antonio Tovar eta Alonso Zamora Vicente akademilariak. Aurkezpena egin
aurretik Fernando Lázaro Carreter egon zitzaigun, ordu berean hitzaldi bat zuelako
ezin etorria agertzen. Azken unean Marcelino Oreja ere etorri zen. Euskal Herriko
parlamentari guziek gomita hartu arren, Madrilen gure herriaren lekuko ditugun kar-
gudunetatik ez zen bat ere agertu.

Mahai buruan L. Villasante eta Pedro Sainz Rodriguez eseri ziren, Alonso
Zamora Vicente eta Antonio Tovar ezker aldean zituztela, Koldo Mitxelena eta Mar-
celino Oreja beste aldean egonez. Euskaltzaindiko idazkariari eskatu zitzaion akade-
miliarien banan-banako aurkezpena egitea, eta honen hitzekin hasi zen batzarra.

Antonio Tovar ohorezko euskaltzaina mintzatu zen lehenik Elkargo bien arteko
eratzun bait zen. Euskaltzaindiari ongietorria eman ondoan, berak bitzitako Jardunal-
dien goi mailako lana eta anai giroko harrera azpimarratu zituen.

Pedro Sainz Rodríguez mintzatu zen gero, estaduko herrialde guzien kultura eta
hizkuntza bereziak denon altxorra direla, esanez. Hori bai; herrialdeok lotura betekin



Madrid, 1981-XII-4.

Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak liburuaren aurkezpenean.

Ezkerretatik eskumatara: Luis Mitxelena; Pedro Saiz (hizketan ari dena); Alonso Zamo-
ra; Fr. Luis Villasante, *Euskaltzainburua*; Marcelino Oreja eta Antonio Tovar.

Koldo Mitxelenak Euskalarien Jardunaldietako historia laburra egin zuen lehenik, hasierako kezka eta beldurra aitortuz. Geroko gertakizunen ondore ona begien aurrean dago eta hango emaitzaren lekuko liburu hau dugu. Zerbait aipamener artean Guillermo Díaz Plaja izendatu zuen euskal literaturaren eta hizkuntza mailako lanak argitaratu dituelako.

Guillermo Díaz Plaja jaunak aipamena eskertuz ihardetsi zion, Esuskaltzaindiaren jokabidea zerbait gauzetan eredutzat hartu behar zela esanez. Kataluniako Hizkuntza elkargoak ez du, noski, Akademia izenik eta berari ez zitzaion hori batere egoki. Helburu berdineko Elkargoek izenburu eta jokabide berdintsuak behar omen litzukete nortasun beraren ezaugarri.

Hitzaldi txukun, biozkor eta pozgarriarekin atera zitzaigun, gero, Pedro Lain Entralgo. Odolean daraman euskal txertoa eta Euskal Herrian igaro zituen gazte denborako oporrak atseginez gogoratzen dituela beti, esan zuen lehenik. Beraren izeba Luisa Coronación Entralgo montejo, Serora izan zen Durangoko komentuan eta gero Abadesa. Abadesa honek euskaraz idatziriko esku izkribu bat erakutsi zigun lain Entralgok eta ondoren pasarte batzu irakurri ere. Hona hemen Lain Entralgok esku izkribuari buruz adierazi ziguna:

“Tengo un cuartillo de sangre vasca: mi abuelo materno era alavés, de Labastida. Siempre he tenido familia en Vizcaya y esta razón me ha llevado desde la adolescencia a frecuentar Euskalerría. He pasado casi cuatro años de mi vida en Pamplona, a dos pasos de la Navarra vascofona y esto me ha hecho vivir de cerca dos contrapuestas vicisitudes históricas del vasquismo: durante mi primera instancia, entre 1921 y 1923, el auge de su prestigio en la España castellanoahablante; en el curso de la segunda, desde el verano de 1936 hasta la primavera de 1938, la torpe y malhadada represión oficial del euskera, incluso entre los reclutas para los que esa lengua era la materna y cotidiana.”

Hona hemen P. Lain Entralgoren izeba Luisa Coronación Entralgo Montejori buruz idatziriko esku izkribua

“Ama coronasionen Nekrolejiye Luisa Coronación Entralgo Montejo jayue isen san, 1879 garren urtien, da ill san 1969 garren urtien baguillen 19 yen, larogueta amaika urtegas. Beren guresuek siren Jose Ramon Entralgo da Militarra Infanteyako Kapitana da beren ama Kontzesiona Montejo, da beren aistak siren Teresa, Kontzesiona da Jose, ya danak difuntuek s.g.d. ba. Onek iru aistok emen gure Kolegiyuen sartu siren gastetatik se ama ill yakien da D. J. Ramonek artu euan parte Cubako guerran da ainche galdu edo illsan, da Kontsesiosa emen edukasiñue artu de guero kolokau san señorita lagun eche on baten, da guero eskondusan Don Pedro Lain Xijarko medikuegas Probinsia Teruel; da siren Mediko Katedrático Konferensiante Don Pedro Lain Entralgon aite da ama. D.^a Luisa gelditu san Colegiyuen Majisteriyue ikesten da Vitoriyak[o] Normalien esamiñau da Magiterijo karrerie amaitu eban; da seguiduen sentidusan Jaungoikuen deiyegas Monja iseteko da eminche guelditusan Monja, beren gastetasunien Profesora gueruau Prefecta da Abadesa oguei urte inguruen, ¡Seinbat kontseju on gastieri! ¡Seinbat limosna esuekiyeri! ¡Seinbat gloriya oni Kolegiyueri! san Moja bat beti kontseju onak sabaltsen beren umore onagas / gosatu eiteebasan batesbe guerra / demporan selako balientie san, bein / baten au, durengo bombardeau da Monjak urten / konventutik da sabaldu siren euren etsietara, / da esan eusten, Monjak bisitau bieduas da neugas / etorri bidosu, da juengaiñien, lelengo Bilbora guero / Zornotsatik, Guernikara, andik Errigoitire, guero / Morgatik Durengora, danak postu beren presensiyegas / da gabes komenture; gustis san balientie, bein / baten guerra denporie san da, gorriyen nausiba-

tek / bieldu gure guindusen konventutik da berak esan eutsen, ¿Nora yuengo gara ba? Palasiyuetara, / esan eutsen, da berak, ¿nundaus orrek palasiyuek / ba?, da isilik ichieban capitan arek [sic], da ¡seinbat onako beren Abadesa demporan!”

Hunkigarria izan zen benetan.

Villasante Euskaltzainburuaren hitz mamitsuekin amaitu zen aurkezpena.

* * *

Itxurakeria hutseko portaera tinko eta berriketa ofizialak alde batera utzirik, oso giro jator eta irekian egin ziren gauzak. Itzal haundiko ospakizuna zen, denbora berean. Liburu dendako zuzendariak aitortu zigunez, bera buru den berrogei urte hauetan ez omen du inoiz hainbat gizon ospetsuren kopururik bertan ikusi.

Irrati saioetarako zenbait elkarrizketa egin zen, baina ez genuen prentsa agiririk gertatu, eta erdal Akademiako zazpi izenen ondoan mahai buruan egondako bi euskaltzainen izenak bakarrik eman zituzten biharamunean. Egia esan, nahiko motz gel-ditu zen Euskaltzaindia irakurleen aurrean.

Bestela, ateraldi oso baikorra izan da eta horrelako ekintzak beldurrik gabe ikusi behar ditu Euskaltzaindiak. Euskara, jalgi hadi mundura.

EN LA PRESENTACION DEL LIBRO DE LOS ENCUENTROS INTERNACIONALES DE VASCOLOGOS

Madrid, 4 de Diciembre de 1981

Fr. Luis Villasante

Sr. Alonso Zamora Vicente, Secretario de la Real Academia Española.

Sres. miembros de la Real Academia Española.

Sres. todos interesados por la cultura vasca.

Señoras, Señores:

Como Presidente de Euskaltzaindia, Real Academia de la Lengua Vasca, sean mis primeras palabras para expresar el más vivo agradecimiento por la cálida y cordial acogida que la Real Academia Española nos ha dispensado.

Ciertamente no es cosa de ahora esta relación entre la Real Academia Española y la Real Academia de la Lengua Vasca. En estos momentos no puedo menos de recordar que D. Resurrección M.^a de Azkue, primer Presidente de Euskaltzaindia, y D. Julio de Urquijo, ilustre miembro de la misma, fueron miembros también de la Real Academia Española. Por otra parte, D. Ramón Menéndez Pidal fue académico de honor de Euskaltzaindia, como lo es ahora D. Antonio Tovar, y, a la inversa, D. Luis Michelena, miembro de número de Euskaltzaindia, pertenece también a la Real Academia Española, etc.

No se inician, pues, hoy las relaciones entre ambas instituciones, aunque tal vez sea ésta la primera vez que a nivel de corporación tiene lugar un encuentro de este género. Y no puedo menos de felicitar me por ello, ya que es un augurio y presagio de más estrechos intercambios en el futuro, que siempre son deseables, porque en el mundo de la cultura no hay ni debe haber diques, fronteras ni compartimientos estancos.

Como sabéis, la Real Academia de la Lengua Vasca no cuenta, como la vuestra, con una existencia multisecular, pues data de principios de este mismo siglo.

En su corta existencia está tratando de sacar a flote a este viejo idioma conocido con el nombre de vascuence o euskara, a esta lengua envuelta en enigmas, que desde las tinieblas de la prehistoria ha conseguido llegar viva hasta hoy. La cosa tiene visos de proeza, o, si se quiere, de milagro.

Como bien sabéis, según dicen los especialistas, el vascuence es una lengua no sólo prerromana, sino aun preindoeuropea. El hecho de que en el Occidente de Europa, después que la marea indoeuropea lo anegó todo, haya subsistido este único islote de lengua europea primigenia —por hablar de alguna manera—, es ciertamente sor-

prendente y constituye para la ciencia y la cultura en general un tema del más alto y vivo interés, aun dando por descontado que el vascuence no ha llegado hasta nosotros —como no podía menos de suceder— sino con mermas, cambios, evoluciones y préstamos que en su larga vida histórica le han acaecido.

No conozco palabras que en términos más bellos, precisos y felices expresen el alto valor científico-cultural de esta lengua que las siguientes, tomadas de un discurso que D. Ramón Menéndez Pidal pronunciara en Bilbao en 1921. Creo que no resulta intempestivo ni incongruo el recordarlas aquí en esta circunstancia. Dice D. Ramón:

“No hay documento histórico más venerable que este documento vivo, esta lengua conservada sobre este territorio, desde época incalculable, quien sabe si anterior al clima y al periodo geológico actuales. Ella, en sus multiseculares sedimentos, nos ofrece restos preciosos para ilustrar los más oscuros problemas de nuestra historia. Tenéis la fortuna de que vuestro pueblo sea depositario de la reliquia más venerable de la antigüedad hispana. Otras tendrán más valor artístico, serán más admiradas y codiciadas universalmente, pero no hay otra que tenga la importancia de esta lengua, sin cuyo estudio profundo jamás podrán ser revelados del todo los fundamentos y los primitivos derroteros de la civilización peninsular, ni podrá ésta ser esencialmente comprendida”.

* * *

El motivo o causa próxima que nos ha traído hoy a esta villa de Madrid es la presentación del libro de los Encuentros Internacionales de Vascólogos. Estos Encuentros fueron organizados por la Real Academia de la Lengua Vasca y se celebraron en Guernica y Lejona el pasado año con la participación de ilustres investigadores y lingüistas de numerosos países. El libro, cuya presentación celebramos en este acto, recoge los trabajos de aquellas jornadas.

Tomando el agua de la fuente —por decirlo de alguna manera—, habría que empezar señalando el hecho de que el interés por el vascuence nos ha llegado a los vascos un poco —o un mucho— desde fuera. Ello en cierto modo es normal. Los vascos vivían su vasquía naturalmente y sin aspavientos y sin dar mayor importancia a la cosa (aunque también es verdad que se dio en el país la casta de los apologistas del vascuence, que escribían en castellano apologías de esta lengua, dirigidas más bien a los castellanos. Recuérdese el caso del P. Larramendi, que en el siglo XVIII polemizaba con Gregorio Mayans y Siscar, con Armesto Osorio, con los diaristas y los académicos de la Española, malhumorado porque, según él, éstos no tomaban suficiente cuenta al vascuence como una de las fuentes de la lengua castellana).

Pero, hablando en términos generales, han sido más bien los de fuera los que han levantado la liebre. Para convencerse de ello basta hojear el precioso libro reciente de D. Antonio Tovar titulado *Mitología e ideología sobre la lengua vasca. Historia de los estudios sobre ella*. Investigadores como Humboldt y Bonaparte contribuyeron poderosamente a atraer la atención de los hombres sabios de Europa sobre esta lengua. Digamos de paso que sobre los trabajos vascos del Príncipe Bonaparte Rodríguez Ferrer publicó aquí en Madrid un bello libro prologado nada menos que por Cánovas en 1873.

Y no sólo en el campo de los estudios vascos, sino aun en el de la literatura escrita en dicha lengua se observa el fenómeno de que sus promotores han sido, en buena parte, personas foráneas u oriundas de fuera. En el siglo XVII un fraile franciscano

francés, E. Materre, viene, llamado por el Obispo de Bayona, a fundar un convento entre San Juan de Luz y Ciboure —por cierto, con el fin de pacificar a estos dos pueblos que sostenían ruidosas peleas entre sí—. Pues bien, Materre se siente impactado por la originalidad de la lengua de los vascos, se pone a aprenderla y lo consigue, y aun se lanza a escribir en ella. Publica un libro, mitad catecismo y mitad devocionario. En el prólogo dice expresamente que una de las razones que le han movido a publicar el libro ha sido para enseñar a los vascos que se puede escribir en su lengua y animarles a que lo hagan. El ejemplo será seguido y así Materre se convertirá en el iniciador de la literatura en lengua vasca en el pequeño país de Labort. Otro caso similar, también del siglo XVII: Silvain Pouvreau, clérigo francés, viene al país en el séquito de un Obispo de Bayona. También él se siente atrapado por el embrujo de la lengua vasca, la aprende y se pone a traducir y publicar obras ascéticas en esta lengua.

Cosa parecida ocurre en la parte española del país. Hay un apellido en la literatura vasca que ha dado nada menos que tres escritores a ésta: me refiero al apellido Moguel. Se trata de una familia de médicos oriundos de Aragón y de Rioja, que se establecieron en el país. El bisabuelo de Juan Antonio Moguel era de Alfaro. Con gran sorpresa mía pude ver que en su partida de bautismo se lee *Noguel* y no Moguel. Sin duda fueron los labios vascos, que sentían dificultad en pronunciar esa *N* inicial, los que transformaron ese apellido de Noguel en Moguel. También el fabulista vasco Iturriaga, cuyo primer apellido no es precisamente Iturriaga, sino Pascual, aunque nacido en Hernani, era hijo de familia foránea.

Habría que citar además también una larga teoría de nombres de eruditos y sabios de diversas naciones, de los siglos XIX y XX, apasionados por los estudios vascos: Schuchardt, Dodgson, Van Eys, Uhlenbeck, Lafon, Bouda... Y la dinastía no se acaba, sino que continúa en nuestros mismos días.

* * *

La Real Academia de la Lengua Vasca creyó que debía hacer algo para reconocer esta deuda, y no se le ocurrió otra cosa mejor que convocar unos Encuentros de los sabios que en el mundo entero se interesan por el viejo euskara. Ello serviría, también, para estrechar relaciones, intercambiar puntos de vista, etc. entre los especialistas del tema. Los Encuentros se celebraron, como he dicho, el verano del año pasado, y constituyeron un verdadero éxito, dado el número y la calidad de los señores de los más diversos países, que acudieron con sus trabajos.

El libro que hoy presentamos recoge las ponencias y comunicaciones de aquellos Encuentros. Ha resultado un libro plurilingüe, pues se ha respetado la lengua en que cada uno presentó su trabajo; pero con el fin de facilitar al máximo el acceso a su rico contenido, se ha puesto a continuación de cada uno un resumen ofrecido por el propio autor y traducido a las lenguas que en este caso parecían más necesarias, a saber, vasco, castellano, francés e inglés. Sin género de duda se puede afirmar que este libro marcará un hito en la historia de los estudios vascos.

Con él inaugura Euskaltzaindia una nueva colección titulada "Iker", en que irán apareciendo estudios e investigaciones que por su largo aliento o volumen desbordan los cauces de su órgano *Euskera*. Paralela a la colección "Iker" se piensa estrenar pronto la colección "Jagon" con trabajos de carácter más directamente pertinentes a la vida y conservación de la lengua. Para conocimiento general debo aclarar que las

secciones *Iker saila* y *Jagon saila*, o sea, la sección filológica y la tutelar, constituyen los dos pilares de la Academia y definen de algún modo el doble ámbito de las actividades de ésta.

No voy a descender a detalles sobre la substancia o fondo del libro, por cuanto en este acto hay quien lo hará con más competencia y conocimiento de causa. A mi solo me resta agradecer de todo corazón a la Real Academia Española la cordial acogida que nos ha dispensado y agradecer asimismo y saludar a cuantos con su colaboración, ayuda y asistencia han querido contribuir a dar realce a este histórico encuentro de la Real Academia Española y de la Real Academia de la Lengua Vasca. *Eske-rrrik asko!*

**“EUSKALARIEN NAZIOARTEKO JARDUNALDIAK”
LIBURUAREN AURKEZPENA**

Barcelona, 1981-XII-12

E. Knörr

Barcelonan

Abenduak 12, eguerdiz, Barcelonan, Universitat Central-eko Aula Magnan, *Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak* liburuaren aurkeztu zen. Mahaiburu Antoni M.^a Badia i Margarit; Errektore jauna, eta ondoan jaun hauek jezarri ziren, Ramon Aramon i Serra, Institut d'Estudis Catalans deritzanaren idazkaria; Jean Haritschelhar, Euskaltzainburuordea; Endrike Knörr euskaltzain osoa, eta Jose Luis Lizundia, Euskaltzaindikoko idazkariordea.



Barcelona, 1981-XII-12.

Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak liburuaren aurkezpenean.

Ezkerretatik eskuinetara: Jose Luis Lizundia; Jean Haritschelhar; Antoni Badia i Margarit; Ramon Aramon i Serra eta Endrike Knörr.

Hasieran Badia i Margarit jaunak eman zuen Generalitat-aren ordezkarien ezin etorria jakinarazi ondoren, presentatzen ari zen liburuaren goratu zuen.

J. Haritschelhar jaunak eskerrak eman zizkion Unibertsitateari eta Jardunaldien zergatia azaldu.

Arramon i Serra jaunak agur bat egin zuen bere erakundearen izenean.

E. Knörr jaunak oroitarazi zuen hiru urte lehenago han bertan presentatu zirela *Euskararen Liburu Zuria* eta *Estudio Sociolingüístico del Euskara*.

Liburua ikerlan onaren ispilua zela esan zuen eta gogobeterik zekarrela Euskaltzaindiak ikerlanean maila goragoak iritsi dituen herrialdera.

Jose Luis Lizundia jauna mintzatu zen azkenik, elkarlanaren premia azpimarratuz, Katalunia eta Euskal Herriak maiz arazo berak topatzen dituelako.